

ORDENAGAILUAK ETA INTERNET

Ikastetxeak ematen dizkidan identifikatzaile eta pasahitza numerikoak nire ikaskuntza-tresnak eta pertsonalak dira. Irakaskuntza jarduerari soilik mugatuak dira:

- Ikastetxeak ezarritako profileko konfigurazioa (mahaigaina, pantaila-babeslea, perfila...) ez da aldatu behar.
- Gmail, Classroom, Drive irakasleak eskatutako lana egiteko soilik erabiliko dira.

Izenpedura:

HEMEN KOLATU

IKASTEGIKO BARNE ARAUDIA

Euskara

Kolegioko komunikazio hizkuntza euskara da, nire herriko hizkuntza, eta honek inguruan duen arnaguneetariko bat. Hemen, euskalki guztiek dute tokia. Besteen euskalkiekin aberastuz, euskaraz bizitzeko aukera paregabea dut eta horretara engaiatzen naiz.

Denak euskaldun... euskaradun gara!

Ongizatea eta aniztasuna

- Nire burua eta gorputza zaintzen ditut, baita nire segurtasuna ere.
- Errespetuzko jarrera atxikitzen dut une ezberdinetan: IDZn ikasgelan, aire hartzean, jantokian, autobusean...
- Jarrera zapaltzaile edo jazartzaileak (hitzezkoak nahiz fisikoak) ez dira onartuak: jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak eta abar.
- Nire ideiak eta iritzia adierazteko eskubidea dut. Errespetatua izan behar naiz eta errespetua erakutsi behar dut besteekiko eta nire buruarekiko.
- Kide bat egoera zailean baldin bada, laguntzen dut. Badakit ere bai talde osoaren gain kontatzen ahal dudala (HAN, zuzendaria, hezitzaileak, irakasleak, tutorea). Ni ere beharrean izanez gero lagundua izan naiteke.

Elkarbizitza

- Materiala errespetatzen dut, kanpoan nahiz barnean. Garbitasuna zaintzen dut, zikinontziak eta konposta baliatuz.
- Lan tresna kolektiboak zaintzen ditut: mahaia, aulkiak, paretak, ordenagailuak... ez ditut hondatzen, ez dut haien gainean idazten eta garbiak mantentzen ditut.
- Komun erabilera zentzuduna dut eta garbitasuna zaintzen dut.
- Aldagelak aldatzeko eta duxatzeko baliatzen ditut, ondokoentzat garbi utziz.
- Kolegioko eremuan goxokiak eta xingomak debekatuak dira.

Zer da kolegioan ikasle izatea?



Kurtsora tenorez iristea da, baldintza onetan aritzeko beharrezkoa dudana materialarekin.



Lan pertsonala (ikasgelan zein etxean) seriozki aitzinatzea da, jarrera egokia erakutsiz.



Kolegioa eta gurasoen arteko komunikazioan partaide izatea da, pasarazi behar ditudan informazioak helaraziz.

Nire ikas prozesuan aktiboki inplikatzeko da:



Besteak entzunez

Parte hartuz



Gogoetatuz

Bilatuz



Geroari begira nire orientazio lantzea da.

Ibilmolde orokorra

KOLEGIORA IRISTEAN

- Kolegiora iristean, mugikorra eta bestelako tresna konektatuak Eskola Bizitzan utzi behar ditut.
- Mediku tratamendu bat baldin badut, agiri eta sendagaiak HAN-ari ematen dizkiot kolegiora iristean.

JANTEGIA

- Txandak eta ibilmoldea errespetatzen ditut giro lasaia mantenduz eta jantegiko karta ekarri.
- Karta ahanzten edo galtzen badut hezitzailea abisatzen dut eta azkena pasako naiz.

GORPUTZ HEZIKETA

- Jantzi egokiak, dutxatzekoak eta aldatzekoak ekarri eta erabiltzen ditut.
- Gorputz Heziketako zakua egokitua zaion apalean utziko dut bildua.
- Mediku agiria HAN edo irakasleari ematen diot kolegiara iristean.
- Gorputz heziketako saioan ezin badut parte hartu, mediku agiria aurkeztea derrigorrezkoa zait.

AIRE-HARTZEA

- Klase orduetatik kanpo kanpoko eremuan egoten naiz barnera sartu gabe.
- Aire hartze denboran jolas eremuak errespetatzen ditut bertako arauak kontuan hartuz.

IDZ

- Lanerako gunea da.
- Liburuak mailegatu eta irakurri daitezke.

DENEN SEGURTASUNA BERMATZEKO

- Nire puskak nire kutxan ematen ditut.
- Pasabidean, eskuinetik ibiltzen naiz korrika egin gabe eta lasaiki.
- Ezin dut arriskutsua izan daitekeen edozein tresna ekarri.
- Autobusean sekuritate arauak errespetatzen ditut lasaiki egonez.